



Jose Ignazio Ansorena

✦ TXISTULARIA

Euskal abestien eufonia

EUSKAL ABESTIEN PARTITURETAN, herriko zein egile-dunetan, maiz testuak ez dira zuzenak. Bakarkako kantarien edo abesbatzetakoen lana eragozten duten hamaika akats izaten dituzte. Honez gainera, bada beste nahaspila iturburua: idatzitako hitzen ahoskera.

Abestien sonoritatearen ederra alderdi musika-lean dago, dagoenez, baina hitzen ebakieran ere bai. Gaztelaniaz, edonork uler dezake XVI. mendeko madrigalak *yeismoz* kantatzeak kalte egiten diola interpretazioari. Operan aritzen diren bakarrekoez ere ongi ikasten dute hainbat hizkuntza ahoskatzen ari hunkigarrienen emozioa modu eraginkorrean komunikatzeko.

Gurean, *Hator*, *hator* kantatzeko garaian, nola abestu, *daigun* edo *dezagun*? *Ikusiko dake*, *ikusiko dek* edo *ikusiko duk*? Nola ahoskatu, *yatera* edo *jatera*? *Ama ere*

Herri giroan, sagardotegian edo parrandan ez dago ezer eskatzerik. Goi-mailako kontzertuetan, ordea, ahotsaren koloreari, tonuen gozatzeari, fraseoari, hainbat hizkuntzaz ongi ebakitzeari arretaz erreparatzen zaiolarik, euskaraz ere gutxieneko mailari eustea eskatu beharko genuke abestien mami artistikoa indar osoz geureganatu ahal izateko

poz-atseginez edo *Ama're poz-atseginez*? Askok *Amaren poz-atseginez*, niretzat inongo poz-atseginik gabe.

Batzuetan saltsaren jatorria abesti beraren zabal-kundean dago. Inguru txiki bateko abestia, Durangaldeakoa kasu honetan, Euskal Herri osora zabalduta. Lehenago ere gertatu dira horrelakoak eta *Andre Madalen* lapurteraz edo *Agur Xiberna* gipuzkeraz kanta izan dira, arrakasta seinala. Baina koherentzia abesti osoan mantendurik, ez egungo nahas-mahasean.

Herri giroan, sagardotegian edo parrandan ez dago ezer eskatzerik. Goi-mailako kontzertuetan, ordea, ahotsaren koloreari, tonuen gozatzeari, fraseoari, hainbat hizkuntzaz ongi ebakitzeari arretaz erreparatzen zaiolarik, euskaraz ere gutxieneko mailari eustea eskatu beharko genuke abestien mami artistikoa indar osoz geureganatu ahal izateko.

Musikenez prestatu beharko luke honetan lan txukuna eta kantu ikasleei edo abesbatza zuzendariei irakatsi, bestela inork ez duelako egingo. Euskal Herriko goi-mailako musika ikastegia da Musikene. Sarri aritzen naiz bertan ikasitakoekin elkarlanean eta esan dezaket kalitate handiko musikari gazteen harrobi bihurtu dela. Kantari edo jotzaile izan, zuzendari edo konpositore, klasikoan, jazzean, garaikidean zein roc-kean gure artean inoiz ez bezalako musikari trebatuak ateratzen ari dira bertatik. Euskaldunak asko. Aipatutakoaren eskasia, ordea, behin baino gehiagotan sumatut eta bideratzen hastea eskertuko litzateke.

Horrela Pablo Sorozabal, esaterako, ez litzateke bere hilobian haserretuko *Gabiltzan kalez-kale umore onian* (ez *onean*) entzutean. ■

Erdibana

Maiatzak 9, larunbata, 22:00tan

Usurbilgo Sutegiko auditorian

Txalok aurkeztutako antzezlan

Antolatzailea: Jexux Artze Kultur Elkartea

Sarrerak:

Lizardin (Usurbil) 8 € aldeztu aurretik,

10 € egun berean (lehiatilan).

Antolatzaileak:



Babeslea:

